

Eragin politikoa erbestetik: Kolonbiako Egiaren Batzordearen ondarearen defentsan



Ikastaro birtualaren memoria
2023ko irailaren 27tik 29ra

Argitalpen hau Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzak Hegoa erakundeari emandako dirulaguntza izendunaren esparruan inprimatu da: «Kolonbiako Egiaren Batzordearen gomendioen jarraipenerako nazioarteko artikulazioa».



Eragin politikoa erbestetik: Kolonbiako Egiaren Batzordearen ondarearen defentsan. Ikastaro birtualaren memoria.

Koordinatzaileak: Claudia Alejandra Sepúlveda-Giraldo, Yulia Serkezyuk

Editoreak:



www.hegoa.ehu.es / hegoa@ehu.es / https://x.com/instituto_hegoa

UPV/EHU

Zubiria Etxea

Agirre Lehendakariaren etorbidea, 81.

48015, Bilbo

Tel.: 94 601 70 91

UPV/EHU

Carlos Santamaria Zentroa

Elhuyar plaza, 2.

20018, Donostia

Tel.: 943 01 74 64

UPV/EHU

Campuseko liburutegia

Nieves Cano, 33.

01006, Gasteiz

Tel.: 945 01 42 87

Maketazioa: Marra, s.l.

Inprimategia: Printhus

Lege-gordailua:

2023ko abendua



Argitalpen hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Baimena duzu lan hau kopianu, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedeetarako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu. Lizentzia, osorik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4>

Aurkibidea

Sarrera	4
1. Eragin politikoa, Kolonbiako Egiaren Batzordearen ondarea zabaltzeko eta ezartzeko	5
Sarrera	5
1.1. Kolonbiako testuingurua: ez errepikatzeko gomendioak eta gomendio horiek ezartzearen arduradunak	5
1.1.1. <i>Gertatutakoak ez errepikatzeko Egiaren Batzordeak egindako gomendioen jarraipena</i>	5
1.1.2. <i>Erantzukizunen arduradunak</i>	7
1.2. Ate irekiak Estatu Batuetan, gertatutakoak ez Errepikatzeko gomendioak erbestean ezartzeko	8
1.2.1. <i>Kolonbiako Egiaren Batzordearen Azken Txostenaren funtsezko alderdiak</i>	8
1.2.2. <i>Egiaren Batzordearen Azken Txostenak Estatu Batuetan izandako harrera</i>	9
1.3. Ate irekiak Europan, gertatutakoak ez errepikatzeko gomendioak erbestean ezartzeko	11
1.3.1. <i>Europar Batasunaren eremua</i>	11
1.3.2. <i>Nazio Batuen Erakundea eta haren erakundeak</i>	12
2. Kabildeoaren bidezko eragin politikoaren aurrerapausoak	13
Sarrera	13
2.1. Eragin-estrategia bat nola eraiki	13
2.2. Kabildeo-estrategia bat nola landu	14
3. Eragin politikoa auzi estrategikoaren bidez	17
Sarrera	17
3.1. Auzi estrategikoa	17
3.1.1. <i>Auzi estrategikoaren etapak</i>	18
3.2. Auzi estrategikoa genero- eta intersekzio-ikuspegitik nazioarteko babesean	19
3.2.1. <i>Genero-arrazoiengatiko jazarpena (PMG)</i>	20
3.2.2. <i>Zertarako genero-ikuspegia duen auzia?</i>	21
3.3. Ikuspegi psikosoziala auzi integraleko estrategietan	22
3.3.1. <i>Arlo psikosoziala ulertzea</i>	22
3.3.2. <i>Auzi estrategikoa arlo psikosozialaren apustu zabal eta integral batetik pentsatzea eta eraikitzea</i>	23
Ondorioak	25

Sarrera

Kolonbiako Egiaren Batzordeak (CEV) 2022an argitaratu zuen Azken Txostena: *Etorkizuna badago, egia baldin badago (Informe Final: Hay futuro si hay verdad)*. Alabaina, oraindik zain daude, erbestea Kolonbiako gatazka armatuaren gertaera biktimizatzaile gisa noiz onartuko. Biktimek, subjektu politikoak diren aldetik, beren eskubideak berma daitezen eskatzen jarraitzen dute; baina, aldi berean, gizarte zibilaren parte diren aldetik, presioa egiten dute gertatutakoak ez errepikatzeko gomendioak bete daitezen, bizikidetzak baketsurako ezinbesteko oinarriak baitira.

Horretarako, CEVi esker sortutako konfiantza-sareari aktibo eusten ahalegindu dira erbesteko biktimak. Laguntza-talde gehienek (*nodoek eta internodalek*) CEV aurreko misioak eta jarduerak berrartu dituzten arren, Europan loturak eta lan komuna hor daude oraindik, Kolonbiako Egiaren Batzordearen Ondarea Babesteko Erbesteko Sarearen (REL) baitan. Sare hori 2023ko apirilean eratu zen, Bilbon, Hegoa Institutuaren laguntzarekin antolatutako nodoen arteko azken topaketan.

RELe lau ekintza-ildo ditu: *intzidentzia/mobilizazioa, komunikazioa/dibulgazioa, ikerketa/prestakuntza eta psikosoziala*. Hala, eragin politikoaren inguruko jardura indartzeko asmoz, Erbesteko eragin politikoari buruzko mintegi birtuala egin zuten 2023ko irailaren 27tik 29ra.

Ikasteko espazio praktiko eta ireki bat sortzeko, Amerikako eta Europako laguntza-taldeak gonbidatu zituzten parte hartzera eta, tailerraren metodologia errazteko, 25 pertsonako talde bat osatu zuten. Nodo hauetako ordezkariak hartu zuten parte: Danimarka, Florentzia, Erroma, Norvegia, Valentzia, Katalunia, Euskadi, Belgika, Alemania, Paris, Suitza, Kanada eta Costa Rica. Talde internodal hauek ere hartu zuten parte: Generoa, Etnia, Ikerketa eta Desagertutako pertsonen senideak. Migrazio-eremuetako eragin politikoari, nazioarteko babesari eta Kolonbiako gatazkaren biktimen eskubideei buruz eskarmentu handia duten hizlariek eta pertsonak garatu eta moderatu zituzten mintegiko gaiak.

EHorrekin bat, mintegian landutako gaiak laburbildu ditugu dokumentu honetan. Lehenik, CEVen ondarearen aldeko eragin politikoak: gomendioen egoera, Jarraipen eta Monitorizazio Batzordearen arabera; eta Estatu Batuetan, Europar Batasunean eta NBEen eragiteko espazioak. Bigarrenik, eragin politikoak kabildekoaren bidez: eragin politikorako plan bat diseinatzeko estrategiak eta kabildeo-ekintza bat diseinatzeko estrategiak. Eta, hirugarrenik, eragin politikoak auzi estrategikoaren bidez: auzi estrategikoaren nondik norakoak, genero-ikuspegia auzi estrategikoan, eta, azkenik, ikuspegi psikosoziala auzi estrategikoan. Jarraian, puntu horietako bakoitza sakonago aztertuko dugu. Amaieran, mintegiaren hiru egunetan azaleratutako ondorio nagusiak bilduko ditugu.

1. Eragin politikoa, Kolonbiako Egiaren Batzordearen ondarea zabaltzeko eta ezartzeko



Moderatzailea: María del Rosario Vásquez Sepúlveda, Kolonbiako bakearen eta giza eskubideen aldeko Kataluniako Mahaiko presidentea eta Generoa talde internodaleko kidea.

Mediku erbesteratua. Emakumeen eskubideen defentsan konprometitua. Kolonbiako gatazka armatuaren biktimei laguntzen aritu izan da.

Sarrera

Kolonbiako Egiaren Batzordeak honako hau adierazi zuen Azken Txosteneko “Kolonbiatik kanpoko Kolonbia. Erbestearen egia” (“*La Colombia fuera de Colombia. Las verdades del exilio*”) izeneko atalean: «[...] aitortza-politika bat formulatzeko eta ezartzeko, orain arte eraikitako egia hori eta ‘Kolonbiatik kanpoko Kolonbiak’ herrialdean bakea eraikitzeko egindako lana integratu behar dira».

Horrela, *Kolonbiatik kanpoko Kolonbia* aipatzean, CEVek dio biktimak ez direla pasiboak; aitzitik, eragile soziopolitikoak direla, eta bizi diren gizarteetan eta gizarteentzat parte hartzen dutela eta bakea eraikitzen dutela. Bien bitartean, biktimak erbestean daude, jatorrizko herrialdeak eta herrialde hartzaileak noiz aitortuko dituzten zain. Eragile izateak erbestean duen dimentsio politiko hori kontuan izanda eta CEVerako lekukotzak biltzean sortutako sarea oinarri hartuta (sare horren ahalmena oraindik ez da amaitu), galdera hau sortu zaigu: Zer egin daiteke erbestetik, gertatutakoak ez errepikatzeko gomendioak ezar ditzaten?

Atal honetan, lehenik eta behin, CEVek egindako gomendioak zertan diren aztertuko da, Jarraipen eta Monitorizazio Batzordeak (CMS) lehen txostenean esandakoak kontuan hartuta. Bigarrenik, aipatuko dugu ea Amerikan eta Europan benetako eta balizko zer egoeratan eragin daitekeen (edo litekeen), erbesteari buruzko gomendioak ezarri eta garatu daitezten.

1.1. Kolonbiako testuingurua: ez errepikatzeko gomendioak eta gomendio horiek ezartzearen arduradunak




Claudia Alejandra Sepulveda-Giraldo, Hegoa Institutuko teknikaria (UPV/EHU).

Psikologoa. Esperientzia handia du gatazka armatuaren biktimei laguntza psikosoziala ematen. CEVen lotura izan zen EAEn, talde elkarrizketatzailea sartu zuen Europan eta, gaur egun, RELen antolaketan laguntzen du.

1.1.1. Gertatutakoak ez errepikatzeko Egiaren Batzordeak egindako gomendioen jarraipena

Jarraipen eta Monitorizazio Batzordeak (CSM) ikuskatzen du ea Kolonbiako erakundeek ezarri dituzten Egiaren Batzordeak Azken Txostenean egindako gomendioak, eta horren jarraipena egiten du. CSMk, martxan jarri eta lehen urtean, zenbait ekintza garrantzitsu egin zituen; besteak beste, ahalegin handia egin zuen egungo gobernuaren Garapen Plan Nazionalean (PND) 8. artikulua sartzeko. Horren bidez, CSMren helburua zen esplizitu egitea Kolonbiako erakundeek bazutela konpromisoa gertatutakoak ez

errepikatzeko CEVek emandako gomendioak ezartzeko. Dena dela, senatuaren laugarren eztabaidan, artikulua ezabatu egin zuten, Gustavo Petroren gobernuaren oposiziokoek emandako argudioengatik. Argudio horien artean, honako hauek nabarmentzen dira:



CEVek “Aurkikuntzak eta gomendioak” (*“Hallazgos y recomendaciones”*) izeneko atalean bildu zituen gertatutakoak ez errepikatzeko gomendioak. PNDn jasotako informazioaren arabera, gomendioak hiru multzotan banatuta geratu ziren: 14 gomendio barruan (bakea, lurralde-bakea eta demokrazia eraikitzeari buruzkoak); 53 gomendio kanpoan (justiziari, kultura-eraldaketari eta narkotrafikoari buruzkoak); eta beste batzuk erdizka (gai hauei buruzkoak: indar publikoaren biktimen birgaitzea eta kalte-ordainak, osasun-arreta integrala, landa-komunitateen babes kolektiboa, emakumeen parte-hartzea, justiziarako sarbidea eta LGTBIQ+ komunitateko pertsonen memoriaren babesa, genero-berdintasunerako estatu-gaitasuna eta abar).

Une honetako testuinguru politikoari erreparatuz gero, egungo gobernuarentzat nahiko egoera zaila da: legegaldien hasieran, 2022ko uztailean, Kongresuaren eraketa gobernuaren aldekoa zen (% 76 koalizioa eta % 11 oposizioa); baina, 2023ko uztailean, osaera nabarmen aldatu zen (% 52 koalizioa eta % 35 oposizioa).

PNDren datuetatik haratago, 2023ko ekainaren hasieran, CSM ohartu zen izapidetzen diren lege proiektuen % 18k soilik aipatzen dituztela zuzenean CEVen gomendioak. Gomendio hauek aipatzen dituzte, batez ere:

- Bakeari buruzko Azken Akordioa oso-osorik betetzen dela bermatzea (1. gomendia).
- Politika- eta hauteskunde-erregimenaren erreforman aurrera egitea (16. gomendia).
- Drogen politikan funtsezko aldaketak egitea (28. gomendia).
- Lurralde-garapenerako estrategia iraunkor bat diseinatzea eta ezartzea, ekitatea eta lurralde-bakea lortzeko (49. gomendia).

CSMren arabera, egungo gobernuak badu konpromisoa CEVen ondarearekin, baina herrialdeko panorama politiko eta sozialak zaildu egin du gomendioak ezartzeko prozesua, honako arrazoi hauengatik:

- Azken Txostena aurkakotasun-tresna gisa erabili da.
- Indarkeriak gora egin du lurraldeetan.
- Ez dago gomendioak ezartzeko politika publikoei buruzko akordiorik.
- Baliabide gutxi daude.
- Oso gutxi dakite gomendioei buruz lurraldeetako biztanleek.
- Nazioaren eta lurraldeen artean desartikulazio nabarmena gertatu da.
- Gizarte zibilak zorrotzago ikuskatu behar luke gomendioak ezartzen diren edo ez.

1.1.2. Erantzukizunen arduradunak

CEVen gomendioak ezartzearen jarraipena egiteko, gomendioak administrazio-sektoreka taldekatzea proposatzen du CSMk, bi salbuespenekin: batetik, gomendio batek hainbat sektore inplika ditzake; eta, bestetik, gomendio bat administrazio-erakunde bati badagokio ere, beste sektore batzuetako erakundeekin, Estatuko beste adar batzuetako erakundeekin, Ministerio Publikoko erakundeekin edo gizarte zibileko erakundeekin artikulatu behar da.

Sektore arduraduna	“Aurkikuntzak” ataleko gomendio-kopurua	Gomendioen eduki batzuk
Presidentea	35	Bakegintzarako eta Adiskidetzarako Ministerioa sortzea. Historiarekin edo giza eskubideekin zerikusia duten inteligentzia-artxiboak gordetzea.
Barne arazoak	31	Memoriaren, egiaren eta bakea eraikitzearen aldeko politika bat hitzartzea. Desagertutzat jotako pertsonak bilatzen saiatzea. Akordio humanitarioak eta bake-elkarrizketak sustatzea.
Defentsa	29	Segurtasun-ikuspegi berri bat eraikitzea herritarrekin. Ez erabiltzea hezkuntza-azpiegiturak helburu militarretarako.
Nekazaritza	17	Lurrak lehengoratzeko prozesuak bizkortzea. Lurren inguruko gatazketan, herri etnikoekin adostasunak lortzea, eta galzorian daudenei lehentasuna ematea.
Hezkuntza	16	CEVen txostena ikasmaterial gisa erabiltzea. Hedabideek bakearen kulturaren zeregina indartzeko estrategiak ezartzea.
Gizarte-oparotasuna eta biktimak	13	Arreta psikosoziala indartzea, ikuspegi bereizgarriarekin. Biktimen, lekukoen eta justizia-sistemaren aurkako indarkeria argitzea eta ez ahaztea. Lurrak suspertzea eta lehengoratztea.
Justizia	11	Arauk egokitzea, giza eskubideen urraketek buruz gehiago ikertzeko. Gatazka armatuan eta giza eskubideen urraketetan hirugarren zibilen eta Estatuko agenteen ikerketa lehenestea.
Kultura	6	Memoriaren Museoari esleitzea giza eskubideen urraketa larrii eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioari buruzko artxiboen kudeaketa.
Kanpo-harremanak	5	Mugaz gaindiko erbestea eta aterpea aitortzea. Gatazka armatua gainditzea eta bakea lortzea oinarritzat hartuta, nazioarteko politika bat ezartzea.
Ingurumena	2	Bakeari buruzko azken akordioa betetzea.
Ogasuna	2	Komunitateen eta erakundeen arteko konfiantza sustatzea.
Estatistika	1	Gatazkaren biktimentzako eta eragileentzako osasun fisiko eta psikosozialeko arreta-programak bultzatzea.
Osasuna	1	
Merkataritza	1	

Aurreko egoera ikusita, badirudi Kolonbian CEVen gomendioak ezartzeko prozesua oso astiro doala, egitura sendorik gabe herrialdean bertan eta aurrerapen gutxirekin *Kolonbiatik kanpoko Kolonbiarentzat*. Zer espero daiteke CEVen gomendioetatik, erbesteko biktimak birbiktimizatzen ez jarraitzeko?

**“Kolonbiatik kanpoko Kolonbia. Erbestearen egiak”
 (“La Colombia fuera de Colombia. Las verdades del exilio”) ataleko gomendioak**

1. Kolonbiako Estatuak erbestea eta biktimak aitortzea.
2. Beste eragile batzuek erantzukizunak onartzea.
3. Kanpoan dauden biktimen, erbesteratuen eta errefuxiatuen erregistro historikoa egitea.
4. Erbesteratzearen eta babes bila joatearen kausa nagusia gatazka armatua dela onartzea.
5. Biktimak aitortzeko ekintzak egitea nazioartean eta Estatuak haiekiko dituen erantzukizunak hartzea.
6. Lankidetzan, nazioarteko babeserako eskubidea bermatzea.
7. Erbesteratuek erreparazioa jasotzea.
8. Kanpoan dauden biktimentzat prestatutako partaidetza-espazio instituzionalak egokitzea.
9. Nazioartean ikuskapen- eta elkarrizketa-guneak eratzea.
10. Duintasunez itzultzeko beharrezko baldintzak bermatzea eta ez errepikatzea.
11. Kanpoan dauden biktimek justiziarako sarbidea izatea.

1.2. Ate irekiak Estatu Batuetan, gertatutakoak ez errepikatzeko gomendioak erbestean ezartzeko

Gimena Sánchez Garzoli, Latinoamerikako Gaietarako Washingtongo Bulegoko (WOLA) erreferentea.



Ingurumen-zientzietan eta dantzan lizentziaduna. Giza eskubideen eta antiarrazakeriaren defendatzailea. Barne-desplazatuentzako Nazio Batuen Erakundeko (NBE) ordezkararen aholkularia izan da. Estatu Batuetako kanpo-politikaren esparruan, Kolonbian, Brasilen eta Haitin giza eskubideak eta justizia sustatzeko lanaren buru da.

1.2.1. Kolonbiako Egiaren Batzordearen Azken Txostenaren funtsezko alderdiak

Kolonbiako barne-prozesuetara hurbiltze aldera, komeni da Kolonbiako Egiaren Batzordearen (CEV) Azken Txosteneko bost alderdi kontuan hartzea, eragin politikoko estrategiak sortzeko:

1. **Biktimek egia jakiteko eskubidea dute.** Horixe izan zen CEVek erabili zuen lan-metodoa, baita azken emaitza ere, atalen bilduman jasotako ahotsen arabera. Gaur egun, Bakerako Jurisdikzio Bereziaren (JEP) lanaren garapenean ere ikus daiteke ikuspegi hori.
2. **Biztanleria zibilak izandako ondorioak gatazka armatuan zehar.** Azken Txostenaren ondorio nagusietako bat da gatazkan parte hartu ez zuen biztanleria zibila izan zela kaltetuena gatazkaren urteetan. Desagertutako pertsonen dagokienez, zenbaki zehatzik ez izan arren, jakina da biktima horietako gehienak zibilak izan zirela. Gainera, indarkeriak herri eta eskualde jakin batzuei eragin zien bereziki (indigenei, beltzei, afrikarren ondorengoei, nekazariei, etab.). Indarkeria-testuinguru horrek guztiak eragin psikologiko nabarmena izan du Kolonbiako biztanleen artean.

3. Etikaren, generoaren eta haurren ikuspegiak erdian jartzea. Ikuspegi horiek txertatu dira, bai CEVen Azken Txostenean, bai Bakerako Azken Akordioaren negoziazioetan.
4. Ameriketako Estatu Batuek Kolonbiako gatazkan izandako pisua aitortzea. Txostenean, Estatu Batuek bake-prozesuari emandako babesa aitortzen da, baina hainbat gobernu estatubatuarri kritika ere egiten zaie, segurtasun-politiken garapenean, militarizazioan eta talde paramilitarren eta Kolonbiako armadaren arteko harremanari buruzko informazioa ezkutatu zutelako. Horrenbestez, AEB gerrako hirugarren aktore armatu ikusezina izan zen.
5. Drogen legez kanpoko ekonomien eta gatazka armatuaren arteko lotura. CEVen gomendioz, Kolonbiako gobernuak nazioarteko eztabaida bat sustatu beharko luke, drogen politika birformulatzeko eta beste ikuspegi bat bultzatzeko: debekua alde batera utzi eta legez erregulatzen hasi.

1.2.2. Egiairen Batzordearen Azken Txostenak Estatu Batuetan izandako harrera

Estatu Batuetan, CEVen Azken Txostena ez zen behar beste zabaldu, eta eztabaida handiak eragin zituen, AEBri egindako kritika zela eta. Kolonbiako justizia trantsizionaleko sistema —bereziki, Bakerako Jurisdikzio Berezia (JEP)— eta CEVen txostena polemika handiko gaiak izan dira Estatu Batuetan, hainbat arrazoiengatik:

- 200 urteko harreman historikoak bi herrialdeetako eliteen artean.
- Álvaro Uribe presidente izan zen garaian (2000ko hamarkadan), *lobbyak* presio handia egin zuen Estatu Batuekiko harremanei zegokionez.
- Juan Manuel Santosen gobernuan (2010etik 2018ra), AEBk babesa eman zion Bake Akordioari, baina baldintza ugariekin: FARC-EP eta Kuba terroristen zerrendan mantentzea, estradizioekin jarraitzea eta abar.
- FARC-EPekin Bake Akordioa sinatu ondoren, Ivan Duque presidenteak (2018 eta 2022 artean gobernatu zuen) ahalegin handia egin zuen Bake Akordioari eta justizia trantsizionalari emandako babesa blokeatzeko.
- Gustavo Petroren egungo gobernuak aurreko gobernuaren kontrako ikuspegia du, erabat. Estatu Batuetan ere ikuspegi hori ezartzen ari dira; hortaz, pixkanaka, justizia trantsizionaleko sistemaren garrantzia nabarmentzen ari dira, eta biktimengan fokua jartzen. Hala ere, alde ideologiko handiak daude Petroren gobernuaren eta Estatu Batuetakoaren artean.

Bi gobernuen arteko distantzia ideologiko hori legegintza-eremura ere hedatu da. Beraz, aurrekontua prestatzean, Estatu Batuetako Beheko Ganberak ez du inolako zenbatekorik aurreikusi Kolonbian bakea eraikitzea edo justizia trantsizionala ezartzera bideratzeko. Hala ere, Alderdi Demokrata eta zenbait kongresukide Kolonbiako bake-prozesua babesten jarraitzearen alde daude.

Egoera hori dela eta, eskualdean presioa egiteko hainbat enfasia-eremu identifikatu dira:

- Bake Akordioa ezartzea eta laguntza humanitarioko neurriak indartzea, batez ere, etnia- eta genero-ikuspegiak kontuan hartuta. Beste talde armatuen elkarrizketak eta desmobilizazio-ahalginak bultzatzea.
- Justizia-administrazioa hobetzen jarraitzea alderdi hauetan: 1) giza eskubideen urraketak ikertzeaz arduratzen diren erakundeen independentzia sustatzea; 2) ikerketa-metodologietan doikuntzak egitea; 3) ikerketari laguntzeko mekanismo bat sortzea; 4) inplikaturako pertsonak estraditatzeko mugak ezartzea, biktimen eskubideak bermatzeko. Hori lortzeko eskualdeko tresnarik indartsuena Amerikarteko Giza Eskubideen Batzordea da.

- Bilatzea eta aztertzea nola prebeni daitekeen erakunde judizialen kooptazioa eta ustelkeria, hala nola fiskaltzena, eta ziurtatzea justiziak eskumena duela biktimen eskubideak bermatzeko, hau da, zigorgabetasuna ezabatzen.
- Kolonbiako segurtasun-aparatua zehatz eta sakon eraldatzea, militarizazioa murrizteko eta giza eskubideak lehenetsiko dituen doktrina berri bat ezartzeko. Horren barruan sartzen da Polizia Nazionala Defentsa Ministeriotik bereiztea.
- Bake Akordioaren Etniaren Kapitulari buruz egindako gomendioak ezartzearen garrantzia azpimarratzea, Estatu Batuak, Mexiko eta Kanadarekin batera, nazioarteko laguntzaileak baitira.
- Dokumentuak desklasifikatzea, eta JEPentzat zein egia argitzeko beharrezkoak diren artxiboak entregatzera bultzatzea, Kolonbia eta Estatu Batuen arteko harremanetarako proposamen espezifiko gisa (presio politikoarekin artxiboak zaintzeko denbora murriztea lor daiteke).

Eskualdeko testuinguruari dagokionez, memoriaren eta gertatutakoak ez errepikatzearen garrantzia eztabaida politikoaren erdigunean jartzeko ahaleginak egin diren arren, aldi berean, egiaren aurkako diskurtso negazionistak ere ari dira agertzen (erreparatu Bolsonarori, adibidez). Ezinbestekoa da krimenak prebenitzea, eta ahal den heinean eragitea, negazionismoa eskualdeko diskurtso politikoetan finkatu ez dadin. Horretarako, CEVen ondarea funtsezko elementua da. Ikuspegi etnikoari dagokionez, garrantzitsua da kontuan hartzea, batetik, Nazio Batuen Erakundearen Afrikarren Ondorengoen Foroa eta, bestetik, Costa Ricako aurreko presidenteordea, Espy Campbell Barr, herri etnikoen memoriarako atak irekitzen ari baita.

Herrialdearen barrualdeari dagokionez, Gustavo Petroren eta Francia Márquezen egungo gobernuak aukera historikoa eskaintzen du bake-prozesurako. Hori gobernuaren borondate politiko nabarmenari zor zaio, nahiz eta zenbait talde eta sektore gobernuaren ildo politikoaren aurka egon.

Herrialde batean gertatzen diren fenomeno politiko, ekonomiko eta sozialek herrialde horretako pertsoneri eragiten diete, eta eragina dute, halaber, beste herrialde batzuetarako migrazio-mugimenduetan. Hala, beharrezkoa da eragin hori erakusten duen narratiban sakontzea. Horregatik, diasporak eta beste herrialde batzuetan erbesteratutako pertsonak jatorrizko herrialdeko adiskidetze-prozesuaren parte izan behar dute, iraganaren aitortzearen leku bat izan behar dute eta etorkizunaren eraikuntzan inplikaturik egon behar dute.

Hori horrela, galdera berriak sortzen dira: nola egin daiteke aurrera eragin politikoan eta kabildean? Edo nola diseinatzen da kabildeo-estrategia? Horretarako, honako elementu hauek hartu behar dira kontuan:

- Zehaztea zer bi edo hiru arlo azpimarratuko diren, herrialde bakoitzaren egoeraren arabera.
- Ikusarazteko estrategia bat prestatzea, jendaurreko ekitaldien, protesten, prentsako lekukotasunen, hedabide sozialen, mintegien, biltzarren eta abarren bidez. Koiuntura politikoak erabil daitezke konektatzeko eta audientzian oihartzuna izateko pertsonaia publikoekin (*influencerrekin*), baita gutunak eta tokiko, udaleko eta nazioarteko ebazpenak ere.
- Oposizioko aurkako argudio sendoak prestatzea. Estatu Batuetan, egiarekiko beldurren inguruan Álvaro Uriberen eta Ivan Duqueren gobernuetako enbaxadore ohiekiko zuzeneko argudiaketa eraginkorra da.
- Erbesteratuen harrera-herrialdearen eta jatorrizko herrialdean eragin politikoaren izateko strategiaren artean loturak ezartzea.

1.3. Ate irekiak Europan, gertatutakoak ez errepikatze gomendioak erbestean ezartzeko

Francesca Nugnes eta Vicente Vallies,
Kolonbiako Nazioarteko Bake Brigadetako (PBI) kideak.



Kabildeo politikoan lan handia egin dute Europan, Kolonbiako giza eskubideen alde.

Jarraian, Europar Batasuna eta Nazio Batuen Erakundea osatzen dituzten zenbait instituzio eta entitate aipatuko ditugu, nodoen kabildeo-estrategietarako eta eragin politikorako garrantzitsuak izan daitezkeenak.

1.3.1. Europar Batasunaren eremua

Europako Batzordea: 27 komisariok osatzen dute (estatu kide bakoitzeko pertsona bat). Europar Batasuneko adar betearazlea da: legeria proposatzen du eta akordioak betetzen direla gainbegiratzen du. Espazio itxia eta iristeko zaila izaten da, komisarioek ez baitituzte kanpoko pertsonak hartzen. Horregatik, espazio horretan zeharka eragin behar da. Une honetan, Europako Batzordearen lehentasunak dira Kolonbian bakea sustatzea, egonkortasuna lortzea eta natura babestea.

Elkarteen Gai Multilateraletarako Batzordea: Bake Akordioak ezartzeko funtsak ematen dituen erakundea da. Gaur egun, JEPerako funtsak onartu ditu, eta Desagertutzat Jotako Pertsonak Bilatzeko Unitatea (UBPD) eta Fiskaltzaren Unitate Berezia finantzatu ditu. Europako Batzordea baino irisgarriagoa da.

Europako Kontseilua: estatuburu eta gobernuburuak eta estatu kideetako ministroek osatzen dute. EBren norabide politiko orokorra definitzen duen erakundea da; hala ere, espazio itxia eta iristeko zaila da. Erakunde horretan eragiteko, estatu kideetatik, kanpo-arazoetako ministerioetatik, enbaxadetatik eta kantzelaritzetatik eragin behar da, edo Kontseiluak dituen lantaldeetatik (geografikoak eta tematikoak).

Bi talde nabarmentzen dira, eragiteko: 1) **Giza Eskubideen Taldea (COHOM):** EBren kanpo-harremanetan giza eskubideekin zerikusia duten alderdiak jorratzen ditu. 2) **Latinoamerika eta Karibeko Taldea (COLAC):** EBk Latinoamerikako eta Karibeko herrialdeekin eta eskualde-integrazioko erakundeekin dituen harremanak gidatzen ditu. Horrela, lantaldeen agendak zein diren jakinda, nodoek koordinatzeko aukera izango lukete, guztiek aldi berean presio egin, eta talde baten bileretan gai espezifiko bati heltzeko.

Kanpo Harremanetarako Europako Zerbitzua (EEAS): norabide tematiko eta geografikoak osatzen dute. Ameriketako zuzendaritzaren barruan "Desk Colombia" dago, herrialde horrekiko harremanen jarraipena egiteaz arduratzen den erakundea. Era berean, bere lana Europar Batasunak Kolonbian duen Ordezkaritzarekin eta Kolonbiako Bakerako Ordezkaritza Bereziarekin koordinatzen da, baita Europar Batasuneko Giza Eskubideen goi-ordezkariekin ere (gaur egun Eamon Gilmore da). Bilerak ez dira hain itxiak, eta posible da giza eskubideei buruzko elkarrizketak garatzea edo informazioak eta analisiak helaraztea. Goi-ordezkariechengana iristea zailagoa da, baina, nodoen artikulazioari esker, baliteke hitzordu bat zehazteko aukera izatea.

Europako Parlamentua:¹ EBko 27 herrialdeetako herritarrek aukeratutako 705 eurodiputatuk osatzen dute; gehienak 7 talde politikotan banatuta daude. Baina eragiteko garrantzitsua da identifikatzea zein talde politiko diren edo izan daitezkeen aliatuak, eta pentsatzea talde horiei nork emango dizkien gomendioak gaiak eta geografiari buruz. Gaur egun, 27 gai-batzorde eta 44 ordezkaritza geografiko ditu Europako Parlamentuak. Beharbada, EBko organorik irisgarriena edo sartzeko errazena da; izan

1 2024ko ekainean egin ziren Europako Parlamenturako hauteskundeak. Testu hau hauteskundeen aurretik idatzi zen.

ere, eurodiputatuek erantzun bat emateko aukera nahiko handia da. Kideei eska dakieke galdera parlamentarioak egitea, gutunak bidaltzea, ekitaldiak antolatzea, Kolonbiara bisitak eskatzea, hainbat herrialdetako parlamentuetan egiten diren antzeko entzunaldiak eta ekintzak egitea.

Erkidegoetako edo estatuko parlamentuak, lankidetzak-agentziak, udalak (alkatetzak), aldundiak (governazioak) eta Europako herrialdeetako beste erakunde batzuk baliagarriak izan daitezke eragin-guneak irekitzeko. Adibidez:

- Espainiako Kongresuko talde parlamentarioa.
- Euskadiko talde parlamentarioa.
- Kataluniako Parlamentuak Kolonbiari buruz emandako legez besteko ebazpenak/proposamenak.
- Erresuma Batuko Lorden Ganberako galdera parlamentarioak.
- Lurreko misioak.
- Tokiko edo erkidegoetako lankidetzak-agentziak, hala nola Garapenerako Lankidetzaren Kataluniako Agentzia (Egia, Justizia, Erreparazioa eta Ez Errepikatze Sistemaren Integrala finantzatzen dute).

Funtsezkoa da, besteak beste, ekintzak txikitik eta hurbiletik egitea eta indartzea, nodo aktiboak dauden hiri eta eskualdeetatik, udalen, zinegotzien eta Kolonbiako kontsulatuaren babesarekin eta parte-hartzearekin batera. Aliantza horien helburu nagusia da CEVEN gomendioak betetzen diren edo ez aztertzea, eta horrek erbestean duen eragina ikusaraztea, baita tokiko, eskualdeko, estatuko eta Europako erakundeek has ditzaketen ekintzak ikusaraztea ere, gomendio horiek betetzen direla azpimarratzeko.

1.3.2. Nazio Batuen Erakundea eta haren erakundeak

Nazio Batuen Giza Eskubideen Goi Komisarioaren Bulegoa (ACNUDH): urtero Kolonbiako giza eskubideen egoerari buruzko txosten bat aurkezten du. Herrialdeetan eragiteko unea da, txostena aurkeztean galderak edo gomendioak egin ditzaten.

Aldizkako Azterketa Unibertsala (EPU): Giza Eskubideen Kontseiluaren mekanismo bat da, eta xedatzen du Nazio Batuen Erakundeko estatu kide bakoitzari, lau urte eta erdian behin, giza eskubideen arloan egiten duen lana aztertzea. Kolonbiari buruzko azken txostena 2023ko azaroan aurkeztu zen. Kolonbiak gomendioak onartu ondoren, gomendio horiek formulatu dituzten estatuak aukera izango dute Kolonbiari gomendio horiek behar bezala ezar ditzan eskatzeko. Hurrengo EPUa (2027/2028) aukera bikaina izan daiteke estatuak Kolonbiako testuinguruari buruzko gomendioak egin ditzaten.

Nazio Batuen errelatoretzak bereziak: hainbat gaiz arduratzen dira, besteak beste, justizia trantsizionalaz. Aduku edo pertsona independente horiek gai eta geografia espezifiko batean aritzen dira, eta egiten dituzten errelatoretzek intereseko aldarrikapenekin lotutako alderdien berri eman dezakete. Pertsona horiekin bilerak egin daitezke, birtualki zein aurrez aurre.

Giza Eskubideen Kontseilua: erakundeekin artikulatzea errazagoa den arren, eztabaidetarako eta guneetarako gaiak ere planteatu daitezke, gomendioak ezartzea azpimarratuta (kasu honetan, erbesteratzearekin eta ez errepikatzearekin lotutako gomendioak).

2. Kabildeoareen bidezko eragin politikoaren aurrerapausoak

Moderatzaileak eta aurkezleak: Francesca Nuges eta Vicente Vallies, Kolonbiako Nazioarteko Bake Brigadetako (PBI) kideak.



Sarrera

Garrantzitsua da aipatzea eragin politikoahalegin eta estrategia ugariz hornitzen dela. Ahalegin eta estrategia guztiak erabiltzen dira eragile politikoek aldatzeko neurriak har ditzaten eragiteko, konbentzitzeko eta presioa egiteko. Horrenbestez, eragin politikoaren xedea errealitatea aldatzea da. Horretarako, hainbat tresna erabiltzen dira, hala nola auzi estrategikoa, bilera politikoetarako guneak dituen kabildeoa, boikota, manifestazioak, kontzentrazioak, plantoia, sareak, adierazpen artistikoak, publizitate-kanpainak eta abar. Eragin politikoan zehar ez da inprobisatzen, hau da, plan bat prestatu behar da, hiru une kontuan hartuta: aurrekoa, bitartekoa eta ondorengoa.

Kabildeoa (*lobby*) intzidentzian planifikatutako ekintzetako bat da eta aldaketa politikorako boterea duten pertsonekin eduki-komunikazioa edo bilerak egitean oinarritzen da. Jarraian, lehenik eta behin, horrelako ekintzak gauzatzeko zer estrategia erabiltzen diren azalduko dugu. Bigarrenik, kabilde-estrategia bat egiteko zer tresna behar diren aipatuko dugu.

2.1. Eragin-estrategia bat nola eraiki

Kabildeoareen garapenak hiru fase ditu: aurrekoa, bitartekoa eta ondorengoa. Hainbat elementuk osatzen dute fase bakoitza. Hona hemen zer ildo estrategikotan komeni den inbertitzea ahalegin eta denbora gehien fase bakoitzean.

Aurrez, ekintza-plan bat prestatu eta zehaztu behar da, eta balizko egoeren ildoak garatu:

- Ekintzan zehar zer dokumentazio aurkeztea komeni den zehaztu, solaskidearen arabera (ez da gauza bera politikari batekin edo gizarte-mugimenduetako aktibista batekin aritzea).
- Ez aurkeztu dokumentu luzeegiak, ez baititu inork irakurtzen.
- Diskurtsoak eta terminoak prestatu, eta pentsatu galdera zail, deseroso edo probokatzaileei zer erantzun.
- Koordinatu, hainbat puntutatik presioa egiteko (nodoak hainbat lekutan daude aldi berean, koordinatuz gero, eragitea lortzen da).
- Pentsatu eragiten duten pertsonak nola zaindu. Intzidentziak higadura, frustrazioa eta ziurgabetasuna eragiten ditu, eta ondorio horiei ahalik eta ondoen erantzun behar zaie. Gainera, egoerak entrenatu eta simulatu behar dira.

Bitartea intzidentzia-ekintzak garatzen diren uneari dagokio. Fase horretan, honako alderdi hauetan jarri behar da arreta:


- Bilera edo ekintza kontrolpean izan.
- Beti prestatutako eskaeretara itzuli (ez utzi manipulatzeko eta ez aldentu gidotik).
- Lasai egon.

- Eskuera argiak eta zehatzak egin, eragileek erraz ulertzeko modukoak.
- Konpromiso argiak ziurtatu, eskaerekin bat datozenak. Agenteez eskatzen zaiena egin nahi ez badute ere, gutxienerako konpromisoak ezar daitezke bileraren ondoren aurrera egiteko.

Ondorengo fasea funtsezkoa da intzidentzia-ekintzari jarraitutasuna emateko eta sistematizatzeko, bai eta kontuak emateko mekanismoak bermatzeko ere:

- Gertatutakoa sistematizatu eta dokumentatu.
- Bileren ondoren, esker oneko mezu labur bat bidaltzea komeni da, hitz egindakoak laburbiltzeko eta hartutako konpromisoak jasota geratzeko.
- Epe ertainera, konpromisoen jarraipena egiteko mezu bat bidali, gure konpromisoak barne. Ez bidali mezu elektronikoa gehiegi.
- Ez bidali etengabe dokumentuak kontaktuei (ez gogaitu kontaktuak).
- Ekintzaren ebaluazioa edo balantzea egin.

Eragin politikoko estrategia batek hainbat ekintza dakartza berekin, eta, horretarako, funtsezkoa da honako hau kontuan hartzea:




2.2. Kabildeo-estrategia bat nola landu

Bi motatako estrategiak daude: batetik, **zuzeneko kabildeoa**, hau da, iritzi publikoaren eta alderdien bitartekaritza gabe botere politikoen aurrean egiten dena; eta, bestetik, **zeharkako kabildeoa**, zeina iritzi publikoaren mobilizazioaren bidez egiten baita. Kabildeoa presio-talde interesdunak egin dezake zuzenean edo, bestela, arlo horretako profesionalek egin dezakete. Hartzaileari dagokionez ere, bi mota daude: **kabildeo parlamentarioa**, botere legegileari zuzendutakoa eta **administrazio- edo gobernu-kabildeoa**, botere exekutiboari zuzendutakoa.

Kabildeoa antolatzeko erabiltzen diren **ekintza-mapak** baliagarriak dira ekintzak bistartzeko eta prestatzeko. Adibidez, kabildeon erbestea gertaera biktimizatzaile gisa aitortzeko, honela jokatu liteke:

- Helburu orokorra mugatzea:** horri esker, eskaerak zehazten eta sinplifikatzen dira. Adibidez, Bake Akordioak ezartzea helburu zabala eta konplexua da. Baina horretarako adierazpen edo lege berri bat nahi dugula zehaztuta, emaitza zehatzagoak lortu ditzakegu.

Utopia / errealismo magikoa / errealismoa hirukoak oso ongi adierazten du hori. *Utopia* da lortzea amesten duguna. Hala ere, *errealismo magikoaren* eta *errealismoaren* artean, helburua lortzeko zer oztopo eta zailtasun dauden ohartzen gara. Zehazteak ez du esan nahi helburuei uko egin behar zaienik, emaitza ziurtatzeko modu bat baino ez da.




Zer lortu nahi den zehazteko, ideia-jasa bat egin daiteke eta, ondoren, garrantziaren arabera ordenatu. Intzidentzian zehar, litekeena da ezezko biribilak jasotzea; beraz, garrantzitsua da **alternatibak izatea**. Demagun agintariek gai jakin bati buruzko adierazpen publikoak egitea lortu nahi dugula, baina badakigula ez dutela egingo; hortaz, beste zerbait eska dezakegu, nahikoa ez bada ere, helburua lortzeko norabide berean jarraitzeko.

b. **Proposamen bakoitza ezartzeko arduraduna nor den aztertzea eta zehaztea.** Esaterako, telebista publikoan erbesteari buruzko kanpaina bat martxan jartzearen arduraduna RTVCPlayko zuzendaria da.



c. Kanpoko eta barruko zailtasunak aztertu eta lantzea, gainditzen saiatzeko. Aurreko kasuari jarraiki, kanpoko zailtasun batzuk izan daitezke RTVCPlayko zuzendariak borondate politikorik ez izatea edo baliabide ekonomikorik ez izatea. Barneko zailtasunei dagokienez, baliteke guk ere baliabide ekonomikorik edo telebista-kanpainei buruzko ezagutzarik ez izatea.




d. **Identifikatzea zer agentek duten eragina.** Hiru eragile mota identifika daitezke:

- **Aliatuak:** gure proposamenekin ados egongo dira. Gure ildoari jarraituz bozkatuko lukete.
- **Eszeptikoak:** ez dute jarrera sendorik. Baliteke eragina izatea, baina ez dakigu zer joera politiko dituzten.
- **Aurkakoak:** ez dute gure jarrera partekatzen eta planteatzen ditugun proposamenen aurka bozkatuko dute.

Eragina duten pertsonak identifikatu ondoren, irizpideak aplikatzea komeni da, lehentasunak ezartzeko:


- Benetako eragina duten pertsonak, hau da, erabakiak hartzen dituztenak. Adibidez, komenigarria al da beti diputatu berengana jotzea, gutxiengo parlamentario izanda ere?
- Zeharkako kontaktuak dira, besteak beste, benetako eragina duten pertsonak, erakundeak edo instituzioak.

- “Konbentzitu” ditzakegun pertsonak.



e. Garrantzitsua da xehetasunetara jotzea, eskaera zehatzak egitea eta honako alderdi hauek kontuan hartzea:

- Zer interesatzen zaio pertsona horri? Zerekiko da sentikorra? Zer daki gure beharrei buruz?
- Nola konbentzitu? Eskaerak, diskurtsoa eta mezua solaskidearen arabera aldatzen dira.



3. Eragin politikoa auzi estrategikoaren bidez



Moderatzailea: Itziar Caballero González,
Ekimen Elkarteko kidea.

Psikologoa. Esperientzia du Erdialdeko Amerikan, Kolonbian, Espainian eta Euskadin giza eskubideen urraketen biktimei laguntzen. Eskarmentua du Istanbulgo Protokoloa aplikatzen eta giza eskubideen eta nazioarteko babesaren arloko eragin politikoa ikertzen.

Sarrera

Egia, justizia, erreparazioa eta ez errepikatzeko prozesuei jarraipena emateko irmotasuna dutenak bizirik atera diren pertsonak dira. Era berean, azpimarratzen dute adostasunak ez lukeela izan behar bostekoa ematea soilik. Hori horrela, eduki politikoa ematen jarraitzen dute bakearen eraikuntzan, eta antolaketa-jarduerari eusten diote, erabakitakoa ezartzeko eta eragiteko.

Atal honetan, lehenik eta behin, auzi estrategikoa aztertzen da eragin politikorako tresna gisa, justiziaren jazarpenetik edo erreparaziotik haratago. Bigarrenik, auzi estrategikoa genero-ikuspegitik garatzeko tresnak eskaintzen dira. Azkenik, auzi estrategiko batean egon behar duten elementu psikosozialak planteatzen dira, prozesu horrek giza eskubideak babesteko bermeak bete ditzan eta kalterik gabeko ekintza izan dadin.

3.1. Auzi estrategikoa

Arsenio G. Cores, DEMOS Giza Eskubideen Lege Azterlanaren
bazkide sortzailea.



Giza eskubideetan espezializatutako abokatu, gizateriaren aurkako krimenei eta genozidioari buruzko prozesu penaletan aditua, asilo-eskubidean, apatridian eta migrazioetan aditua, bai eta nazioko eta nazioarteko goi-azitegietan auzi estrategikoetan aditua ere.

Auzi estrategikoaren (eragin handiko auzi edo interes publikoko auzi ere esaten zaio) helburua da biktimentzako justizia eta erreparazioa ez ezik, hori baino eragin handiagoa lortzea. Horrelako kasuek, epaia emateaz eta biktimen familiei erreparazioa emateaz gain, herrialdeko legediak aldatzeko ere balio dute. Horri esker, auzi estrategikoek ondorio handiagoak izango dituzte horrelako auzietara jotzen duten justizia- eta erreparazio-eskaerek baino.

Auzi estrategikoa Estatu Batuetako klinika juridikoetan sortu zen, 1970eko hamarkadan, errealismo juridikoan oinarrituta (Jerome Frank). Zuzenbidea pertsonei hurbiltzeko beharra defendatu zuten, erabili ahal izateko eta, horrela, gizartean eragina izateko. Klinika juridikoetatik sortu ziren abokatuen eta gobernuz kanpoko erakunde bulegoek defendatzen dute zuzenbidea ez dela epaileen edo abokatuen jabetza, baizik eta gizartearen jabetza.

Auzi estrategikoa ez da nahitaez nazioarteko edo goi-instantziako auzitegietan egin behar, eta ez du auzi juridikoa izan beharrik. Baldintza hori ez da beharrezkoa auzia estrategikoa izateko. Horren erakusgarri da Madrilgo Erkidegoko Gobernu Ordezkaritzan asilo-eskatzailerek errotzeko baimena lortzeko eragozpenari buruzko kasua. Errotzeagatik egoitza eskatu ahal izateko, asiloari uko egin behar zioten nahitaez. Lehenik eta behin, kabildeo-ekintza bat egin zen Gobernu Ordezkaritzan, eta,

ondoren, errekurtsio/apelazio administratiboa jarri zen, auzitegietara jo gabe. Bi hilabeteren buruan, administrazio-ebazpena aldekoa izan zen, eta Gobernuaren Ordezkaritzak beste irizpen bat eman zuen, eta adierazi zuen errotzeko eskaera eta asilo-eskaera bateragarriak zirela.

Beraz, testuingurua ezagututa eta aldez aurreko kabildeo-ekintza bat eginda, ez zen auzitegietara jo beharrik izan, eta eragin hori, kasu zehatz batetik harago, egoera berean zeuden pertsona guztientzat izatea lortu zen.

Gai horren inguruko eztabaidak gorabehera, esan genezake ezin dela auzi estrategikorik egon giza eskubideen esparrutik kanpo, eragina gizarteari zuzendu behar zaiolako. Horrela, edozein kasu izan daiteke auzi estrategikoa. Kasu horietan, hainbat elementuk eragingo dute, hala nola frogen kalitateak, biktimekiko harremanak, eskura dauden bitartekoek, baina oinarritik eraikitako beste elementu batzuk ere egongo dira; hau da, kasua bideratzeko modua ere garrantzitsua izango da prozesua bera garatzeko.

3.1.1. Auzi estrategikoaren etapak

Auzi estrategikoetan, hiru elementu nabarmendu ditzakegu: 1) auzia; 2) kabildeoa; 3) eragina. Interes publikoko auzi baten etapan arabera, estrategia bat edo beste bat erabiliko da. Alegia, ez da beharrezkoa estrategia berdinak erabiltzea kasu guztietan. Honako etapa hauek igarotzen dira:

- a. **Monitorizatzea:** giza eskubideen urraketak zer testuingurutan gertatu diren ezagutzea eta pertsonak zer ondorio izan dituzten jakitea.
- b. **Plan bat egitea:** kasua paradigmatico bihurtuko duen abiapuntua.
- c. **Prestatzea:** zuzenbideari buruz ikastea, ezagutza ahalik eta zehatzena izan dadin.
- d. **Plana berrikustea:** aldaketak sortzen dira prozesuan zehar.

Horrez gain, tresna horien alderdi estrategikoa hainbat planotan dago: 1) arlo juridikoan; 2) arlo politikoan (adibidez, kabildeoarene bidez); 3) arlo ekonomikoan (auziaren iraunkortasuna ahalbidetzen duena); 4) arlo psikologikoan (biktimekiko lanean, frogak lortzeko moduan pentsatuz, baina baita prozesuari eusteko mekanismoetan ere); 5) komunikazio-intzidentzian.

Amaitzeko, garrantzitsua da lau ideia nabarmentzea. Etapa guztietan funtsezkoa da **biktimek parte hartzea**; izan ere, erabaki judizial batzuk hartzea eragindako pertsonari dagokie, eta ez abokatuei. Bigarrenik, auzi estrategikoa arazo sozialak ikusaraztea ahalbidetzen duen tresna bat da, eta sormena dakar berekin, aldaketa sozialaren zerbitzura. Azkenik, ia ez dago nazioarteko ebazpenik errefuxiatuek planteatutako kasuei buruz. Errefuxiatuen arloko auzi estrategikoa oraindik aztertzeko dago.

3.2. Auzi estrategikoa genero- eta intersekzio-ikuspegitik nazioarteko babesean



Rocio Mateo Medina,
abokatu independentea.

Abokatua, giza eskubideetan, generoan eta migrazioetan aditua. Hainbat gizarte-erakunderentzat egin du lan, Nazioarteko Babeseko abokatu gisa, kolonbiarren asilo-eskaerekin batera, arrazoi politikoengatik eta genero-jazarpenengatik (bereziki sexu-indarkeria eta LGTBI kolektiboa).

Auzi estrategiko bat lortzeko, hainbat estrategia konbinatu behar dira (ez juridikoa bakarrik), eta guztiek abiapuntu bera izan behar dute: testuingurua ezagutzeta. Kolonbiako erbesteari dagokionez, hiru alderdi hartu behar dira kontuan: 1) Kolonbiarako nazioarteko babesa Europan, 2) nazioarteko babesaren esparru kontzeptuala eta 3) genero-ikuspegia migrazioetan.

Europak Kolonbiarekiko duen nazioarteko babesaren testuinguruan, datu garrantzitsu batzuk nabarmendu behar ditugu:²

- 2022an, munduan, 5,4 milioi pertsonak eskatu zuten asiloa.
- Kolonbia da barne-desplazatuaren kopuru handiena duen bigarren herrialdea.
- Kolonbia da asilo-eskatzaileen zortzigarren herrialdea Europan.
- Kolonbia da asilo-eskatzaileen jatorrizko bigarren herrialdea Espainian (36.012):
 - 646 pertsonari errefuxiatu estatusa eman zaie.
 - 12 pertsonari babes subsidiarioa eman zaie.
 - 193 pertsonari errefuxiatu estatusa eman zaie arrazoi humanitarioengatik.
 - Oraindik 21.625 kasu daude ebatzteke.

Auzi estrategiko baten laguntzarekin, Europar Batasuneko gorengo instantziek aldeko iritzia emango lukete, ziurrenik, aldeko ez diren ebazpen horietako askotan edo oraindik ebatzi ez direnetan.

Nazioarteko babesa estrategia bat da: nazioarteko komunitateak babesa eskaintzen die jatorrizko estatuak babestu nahi edo ezin dituen pertsonari, edo, aitzitik, estatuak berak urratzen dituen herritarren eskubideak. 1951ko Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Genevako Konbentzioaren arabera (1. artikulua, A2), pertsona orok aukera du beste herrialde batean babesa eskatzeko:

Arrazagatik, erlijioagatik, nazionalitateagatik, talde sozial jakin bateko kide izateagatik edo iritzi politikoengatik jazarria izateko beldur oinarrituna dela eta, bere nazionalitateko herrialdetik kanpo dago, eta ezin du herrialde horren babesa jaso, edo, beldur hori dela eta, ez du nahi.

2 Iturriak: ACNUR, EBko Asilo Agentzia, Barne Ministerioa

1951ko Genevako Konbentzioak nazioarteko babesean duen garrantzia gorabehera, errefuxiatuaren kontzeptu nahiko mugatua ematen du; izan ere, erbesteak, adibidez, Konbentzio horretan jasota ez dauden alderdiak ere baditu. Hauek dira asilo-eskaera bat dokumentatzeko funtsezko elementuak:

- Jatorrizko herrialdetik kanpo egotea.
- Beldur oinarritunak izatea: elementu objektiboa jatorrizko herrialdearen testuinguru soziopolitikoak da eta, elementu subjektiboa, pertsonen bizipena.
- Jazarpen-ekintzak edo gertaera biktimizatzaileak jasan izana.
- Jazarpen-arrazoiak kontuan hartzea (arraza, erlijioa, nazionalitatea, gizarte-talde jakin batekoa izatea, iritzi politikoak).
- Jazarpen-agentek, biktimarioak edo indarkerien erantzuleak kontuan hartzea.

3.2.1. Genero-arrazoiengatiko jazarpena (PMG)

Etniak, gizarte-klaseak, sexu-identitate eta -orientazioak eta, bereziki, generoak markatzen dituzte migrazioak. Gaur egun, NBERen arabera, gero eta emakume gehiagok migratzen dute modu autonomoan, beren familientzat funtsezko elementu gisa; izan ere, askotan, beraiek dira hornitzaile nagusiak. Diskriminazioa eta genero-indarkeria emakume migratzaileen jatorrian, joan-etorrian eta helmugan nabari ohi dira.

Genero-arrazoiengatik nazioartean babesteko espedienteen dokumentazioa honako esparru juridiko honetan oinarritzen da:

- Emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioa (CEDAW, 1979).
- Nazioarteko Zigor Gortearen Erromako Estatutuaren (2000) arabera, delitu hauek guztiak gerra-krimenak dira gatazka armatu baten testuinguruan aipatzen direnean: bortxaketa, esklabotza sexuala, behartutako prostituzioa, nahi gabeko haurdunaldiak, esterilizazio behartuak eta abar. 7. artikuluan gizateriaren aurkako krimena definitzen da, genero-jazarpena barne.
- Genero-arrazoiengatiko jazarpenari buruzko jarraibideak, 1951ko Genevako Konbentzioaren (2002ko maiatzaren 7a) 1A (2) artikuluan testuinguruan.
- Gizarte-talde jakin bateko kide izateari buruzko jarraibideak, 1951ko Genevako Konbentzioaren (2002ko maiatzaren 7a) 1A (2) artikuluan testuinguruan.

Genero-arrazoiengatiko jazarpenak ezaugarri jakin batzuk ditu:

- Batzuetan, emakumeek eta neskek ez dakite beren esperientzia eta jatorrizko herrialdeko inguruabarrak nahikoa arrazoi direla asilo-eskubidea bermatzen duen babes berezia jasotzeko. Hain zuzen ere, abokatuekin egindako lehen elkarrizketetan, emakume askok ez dute azaltzen zein izan den herrialdetik joateko benetako arrazoia, edo ez dute nazioarteko babesa eskatzeko arrazoitzat jotzen.
- Jasaten dituzten mehatxu gogorren ondorioz, emakumeei kosta egiten zaie beren beldurren eta beren irteeraren benetako arrazoiak zein diren kontatzea.
- Beharrezkoa da hainbat elkarrizketa egitea emakumeekin konfiantza ehuntzeko, kontakizun osoa kontatu ahal izan dezaten. Kontuan hartu behar dira faktore kulturalak, adina, maila sozioekonomikoa, bizipenen inpaktu emozionala eta abar.
- Oso garrantzitsua da emakumeen nortasunari, historiari eta esperientzia pertsonalei buruzko informazio osoa izatea, bai eta jatorrizko herrialdeko inguruabar historiko, geografiko eta kultural espezifikoaren azterketa eta ezagutza eguneratua izatea ere.

Kimberlé Crenshaw legelari afro-amerikarrak sortutako begirada interseksionala txertatuz, kontuan hartu behar da emakumeek ez dituztela genero-indarkeriak modu berean bizi. Ikuspegi honen bidez, pertsona bati egotz dakizkiokeen diskriminazio-adierazpenak ikusarazi nahi dira, aldi berean elkarri eragiten dioten eta indarkeria-modu espezifikokoak sortzen dituzten modu guztiak ikusarazteko.

Diskriminazio interseksionala ez da nahasi behar diskriminazio anizkoitzarekin. Azken horri esker, gerta daitezkeen diskriminazioen kausen azterketa independentea egin daiteke. Aldiz, diskriminazio interseksionala ez da sortzen bi diskriminazio faktore edo gehiago aldi berean gertatzen direlako, baizik eta estereotipo sozial negatiboak betikotzen direlako.

3.2.2. Zertarako genero-ikuspegia duen auzia?


Genero-ikuspegia duen auzi estrategikoak mesede egiten dio emakumeen bizitza babesteko aplikatzen diren lege, protokolo, arau, plan eta abarren aldaketari. Estrategia hori egokia da honako egoera hauetan:

- Indarrean dagoen zuzenbidean hutsune bat dago emakumeen aurkako indarkeriaren bermeari, babesari, arretari, ikerketari, zigorrari eta erreparazioari dagokienez.
- Emakumeek indarkeriarik gabe bizitzeko duten eskubideari dagokionez, desadostasunak daude barneko zuzenbidearen eta nazioarteko estandarren artean.
- Emakumeen eskubideen bermeari buruzko nazioarteko estandarrak txertatu nahi dira barne-zuzenbidean.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren egiturazko eredu edo testuinguru bat ikusarazi nahi da.
- Eragin indibiduala, soziala edo instituzionala sor dezaketen kasuetan.

Juana Quispe Boliviako Ancoraimes udalerriko zinegotzia izan zen, eta bere agintaldian, 2012an, feminizidioaren biktima izan zen. Erail baino sei hilabete lehenago, publikoki salatu zituen jasaten ari zen jazarpena eta heriotza-mehatxuak.

Kasua oraindik ere zigor-instantzietan ikertzen ari den arren, agenda publikoan jarri zuen premiazkoa zela generoan oinarritutako indarkeria-adierazpen mota horiek artatzea bizitza politikoan. Gainera, Jazarpen eta Indarkeria Politikoaren aurkako 243 Legearen aldarrikapena bultzatu zuen, eta Bizitza Politikoan Emakumeen aurkako Indarkeria Politikoa Prebenitzeko, Zigortzeko eta Desagerrarazteko Amerikarteko Eredu Legea inspiratu zuen.

3.3. Ikuspegi psikosoziala auzi integraleko estrategietan



Diego Abonia Vergara,
psikologoa eta giza eskubideen defendatzailea.

Gatazka armatuaren biktimei eta desagertutako pertsonen senideei lagundu die, ikuspegi psikosozial eta psikojuridikotik. Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrak eta Kolonbiako Gorte Konstituzionalak agindutako erreparazio-neurrien ikerketak eta jarraipena egin ditu.

Ikuspegi psikosozialak, auzi estrategiko baten aniztasunaren plangintzan, Ignacio Martín Barók El Salvadorren egindako lanean oinarritutako elementuak ematen ditu. Martín Barók Hego Konoko diktaduren biktimekin izandako esperientziei eta Kolonbiako gatazkaren biktimen esperientziei buruzko lana egin zuen.

3.3.1. Arlo psikosoziala ulertzea

Ulermen psikosozialaren helburua pertsonen, familiek, kolektiboek eta herriek gertaera biktimizatzaileei eta horien testuinguruei ematen dizkieten interpretazioak ulertzea da, bai eta aurre egiteko moduak eta gertaera horiek beren bizitzetan eta identitateetan hartzen duten esanahia ulertzea ere. Era berean, esperientzia traumatikoari heldu nahi dio: zentzua eman eta barneko eta kanpoko baliabideetarako sarbidea sustatu. Ulermen psikosozialak laguntza psikologikoa eta prozesu terapeutikoak barne hartzen ditu, giza eskubideen ikuspegitik. Horrela, psikologiaren lanketa kliniko tradizionala gainditzen da.

Horrela, arlo psikosoziala ulertzeak praktika psikologikoa ekintza askatzaile bihurtzen du, eta pertsonak subjektu historiko, sozial, kultural eta politiko gisa onartzen ditu. Gainera, gizarte-sareak berreraikitzearen aldeko apustua egiten du, lotura berriak eta beste harreman mota batzuk aitortzen ditu, bai eta biktimak indartzearen aldekoa ere, biktimek eraldaketa sozialak, politikoak eta ekonomikoak aldarrika ditzaten. Ekintza horiei esker, giza eskubideen urraketek eragina dute gizarte osoan.

Arlo psikosozialak aukera ematen die biktimei eta haien familiei beren burua eskubideen subjektu eta subjektu politiko eta herritartzat aitortzeko, arlo juridikoa gainditu eta historikoa, soziala eta kulturala dimentsionatzeko. Gainera, edozein strategiaren esparruan, pertsonen nortasuna osatzen duten ikuspegi bereizgarriak hartu behar dira kontuan.

Ikuspegi psikosozialak jorratzen dituen eremuen artean hauek daude:

- **Eragin emozionala:** biktima izan diren pertsonen agertoki emozionalak eta indarkeriazko gertakarietatik abiatuta beren buruari buruz dituzten narratibak edo istorioak.
- **Eragina harremanetan:** identitatea besteekin batera eraikitzen da familian, gizartean eta kulturean, eta, hori modu zakarrean bortxatzen badira, nortasun indibiduala eta kolektiboa aldatzen ditu.
- **Eragin politikoak:** biktimen eskubideen urraketak aztertzea, pertsona eskubideen subjektu gisa, bere buruaren eta besteen aurrean duen rola erakuntza kultural eta politikoak identifikatzeko.

Laburbilduz, ikuspegi psikosozialak subjektu sozial, politiko, kultural eta historiko erlazional eta integralaren begirada bat hartzen du, eta hori, aldi berean, testuinguru soziopolitiko jakin batean eraikitzen da.

3.3.2. Auzi estrategikoa arlo psikosozialaren apustu zabal eta integral batetik pentsatzea eta eraikitzea

Auzi-estrategia bat prestatzeko, ikuspegi psikosoziala biktimekin, familiekin, haien erakundeekin eta komunitatearekin batera landu behar da, eta, gainera, biktimen narratibak aitortu, baloratu eta txertatu behar dira, eragindako inpaktuaren aurrean (bai indarkeriazko ekintzengatik, bai auzi prozesuagatik). Horrek zerikusia du biktima edo bizirik iraun duen pertsona izatearen eskubideak betetzeak dakartzan arriskuekin.

Hauek dira auzi estrategiko bat eraikitzeko elementu psikosozialak:

- Biktimek gatazka armatuari eta indarkeria soziopolitikoari buruz dituzten azalpenak ezagutzea. Ulermen psikosozialaren osagai horrek oinarriak ematen ditu jakiteko auzi estrategikorako zer hartuko den kontuan.
- Parte hartzeko metodologia malguak eraikitzea, alde guztien ekarpen eraginkorra ahalbidetzeko. Garrantzitsua da ezagutzei buruzko elkarrizketa bat ezartzea ikuspegi bereizgarrietatik, pertsona guztiek ikus dezaten beren esperientziak baloratzen direla eta beren ezagutzak prozesuan aintzatesten direla.
- Estrategia eraikitzen parte hartzen duten eragile guztien itxaropenak eta interesak berrikustea eta aitortzea. Prozesuan zehar, hau guztia aztertu behar da: biktimek zer espero duten, zer lortu nahi den, lorpenak zeren eta noren mende dauden, helburuak lortzen ez badira zer gertatzen den eta prozesuaren ikaskuntzei zer leku emango zaien.
- Subjektu “sentipentsanteak” direla onartzea (Martín Barók planteatzen zuen arlo emozionala eta politikoa konbinatzea). Horretarako, honako alderdi hauek hartu behar dira kontuan:
 - Kontuan izatea pertsonak higatu egiten direla. Honako hau esan daiteke: “ezin dut edo ez dut apustu honekin jarraitu nahi”.
 - Kontuan izatea, inpaktu eta ondorioen parte gisa, egia eta justiziarako eskubideen aurkako zigorgabetasunak auzi estrategiko baten apustuaren osagai sozial eta politikoetan eragiten duela.
 - Segurtasun-baldintzak eta arriskuak baloratzea.
 - Desberdintasunak ezagutzea eta horiei heltzea, eta Eztabaida sozialaren leku publiko batean jartzea.
 - Entzute psikologikorako espazio iraunkorak ezartzea, prozesuari aurre egiten lagundu eta monitorizatu ahal izateko.
- Askotariko ahotsak integratzea, auziaren eragina bermatzeko.
- Egiaren, justiziaren eta erreparazioaren aldeko apustuei esanahia eta zentzua ematea, eta eskubide horiek justizia trantsizionalaren esparruan birkonfiguratzea. Eskubideei buruzko ikusmoldeak alda daitezke, baina mahai gainean jarri behar dira, biktimek berek eskubide bakoitza edukiz bete dezaten.
- Gertaera biktimizatzaileen eta apustu estrategiko zabalago baten arteko lotura ezartzea.
- Komunikazio, hedapen eta presio publikorako estrategiarako antolamendu-moduak kontuan hartzea.

Auzi estrategikoa ikuspegi psikosozialetik prestatzearen esparruko beste alderdi batzuk kontuan hartu behar dira:

- Prozesua duingarria izatea parte hartzen dutenentzat.
- Prozesuak aukera ematea kaltea birdimentsionatzeko, espazio psikosozialekin hitz egiten duten modu kontrajarrietatik.
- Egia, justizia eta erreparaziorako eskubideak gauzatu eta bermatzen laguntzea, arauen eta jurisprudentiaren alde eginez.
- Gizartearen barruan antolamendua indartzen laguntzea.
- Erreparazioa problematizatzea. Galdetu erakunde edo biktima bati zerk sentiarazten dion behar bezalako erreparazioa jaso zuela.

Auzi estrategikoko prozesu horretan gaintitu beharreko erronka batzuk ere sortzen dira, esaterako: zuzenbidearen bertikaltasuna; talde txiki eta homogeenak eratzea; gatazkaren erdian eskubideak defendatzea; barne-gatazkak eta kanpo-mugak aitortzea; hizkuntza juridikoa pertsonei eskuragarri egitea; epaiak inplementatzeko erronka eta abar.

Kolonbiako Konstituzio Auzitegiaren T-045 epaia, El Saladoko sarraskiei buruzkoa, ikuspegi psikosozialaren aldeko auzi estrategiko baten ilustrazioa da. Auzia tutoretza-ekintza batean oinarritu zen; lau emakumek Kolonbiako Juristen Batzordearen bidez aurkeztu zuten.

Gorteak onartu zuen emakumeen osasunerako eskubidea urratu zela, eta haiei, familiei eta komunitateari kalte-ordaina emateko agindu zuen. Hau da, erreparaziorako eskubidea osasunarekin eta arlo psikosozialarekin lotu zuen. Komunitatea gizarte-laguntzako sare gisa aitortu zuen, eta ingurune kulturalak eta historikoak babestu zituen.

Epai horren bidez, osasun-arretarako protokoloak, programak eta politikak diseinatu dira, gatazka armatuaren biktimen, haien familien eta komunitateen premia bereziekin bat etorritik, batez ere inpaktu psikosozialak berreskuratzeari dagokionez.

Ondorioak

Erbesteratze-sarea Egia Argitzeko Batzordearekin batera eraiki zen, eta Azken Txostenean jasotako ez errepikatzeko gomendioak bultzatzeko baliabide indartsua da. Hainbat puntu kardinaletan egotea, taldeen barruan pertsona kualifikatuak izatea, esperientzia, eta biktimen erakundeen lorpenak aprobetxatu eta sustatu beharreko faktoreak dira Kolonbiatik kanpoko eragin politikoa duten ekintzetan.

Estrategia hori gauzatzeko, beharrezkoa da erbesteko biktimek eta bizirik atera direnek, lehenik eta behin, **etorkizuneko ekintzak ebaluatzeko ariketa** bat egitea, plan bat sortu ahal izateko, **aldaketa jakin** batzuei begira jarriz eta **helburu espezifikoak** ezarriz. Hala ere, nodoek eztabaida **politikoak** egin beharko dituzte **narratiba jakin batzuk marrazteko** eta, horrela, espero diren emaitzak lortzeko modurik egokiena zehazteko.

Jorratuko diren helburuei, estrategiei eta gaiei buruzko akordioetara iritsi ondoren, eragin nahi zaien **eragileengan jarri behar da arreta**. Horrela, lehenik eta behin, **erakunde bakoitzaren eskumenak** aztertu behar dira, jakiteko nori zer ekintza mota, txosten, dokumentazio eta abar bideratu. Bigarrenik, aurkezten diren **txostenak** eta dokumentuak laburrak eta zehatzak izan behar dira, eta gai bati edo biri heldu behar diete (informazio asko badago, galtzeko arriskua dago). Hau da, eskaerak zenbat eta laburragoak, zehatzagoak eta dokumentatuagoak izan, orduan eta handiagoa da intzidentzia-ekintza batek arrakasta izateko aukera.

Halaber, beharrezkoa da **intzidentzia-mapa** bat egitea. Hau da, ezin dira ekintzak inprobisatu; behar bezala antolatu, programatu eta planifikatu behar dira. Hala ere, mapa horrek **malgua eta dinamikoa** izan behar du, alderdiak sartu eta aldatu ahal izateko, eta erabakiak hartzeko eremuetan eragina izan dezaketen bazkide politiko, erakunde aliatu edo pertsona publiko berriak integratzeko. Ildo horretan, funtsezkoa da ekintza-plana etengabe berrikustea, aurkezten diren inguruabarrak eta jarrera politikoak etengabe ebaluatuta. Hau da, garrantzitsua da ekintzaren garapenean sortzen diren **zirkunstantzia, aldaketa eta ezustekoetara egokitzea**.

Bestalde, **kabildeoa** eta **auzi estrategikoa** eragin politikoko bi tresna dira, eta nodoek eta talde internodalek erbestetik nazioarteko presioa egiteko erabil ditzakete. Biak modu holistikoa landu behar dira, genero-ikuspegia eta ikuspegi psikosoziala txertatuz.

Laburbilduz, eragin politikotik garatzen diren ekintzak **urrats txikiak** izan daitezke, **baina aldaketa handiak** ekar ditzakete biktimentzat, maila indibidualean ez ezik, gizarte osoarentzat giza eskubideen sustapenean eta defentsan ere.





EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTITZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SALA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTITIA Y POLITICAS SOCIALES